

Bertsolaritzaren memoria eraikitzen

Bertsolaritzaren ondarea biltzeaz, antolatzeaz eta gizarteratzeaz arduratzen da Xenpelar Dokumentazio Zentroa. Bertso saioetan kantuan, gai jartzen edota epaitzen aritzen direnentzat ez ezik, oso preziatua da eskaintzen duten zerbitzua ikertzaileentzat eta hedabideentzat ere, besteak beste.

Abuztuak 15. la Euskal Herri osoko txoko guztietan bezala, jaiak dira Donostian ere. Grabagailua hartuta, hara joan da Lierni. Audio teknikariari irteera eskatu, eta argi gorria piztuta grabatzen hasi da grabagailua. Igo dira bertsolariak eta gai-jartzailea oholtzara: "Eguerdia on, denoi. Ongietorri..." hasi da saioa.

Hemendik aurrerakoa bat-batekoa izango da. Gogoratzeko moduko harribitxirik bada, gordeta geratuko da han elkartutako donostiarrentzat ez ezik, interesa duen ororentzat. Hori Liernik jasotako material horrek egingo duen bideari esker.

Amasa-Villabonako Subijana Etxean kokatutako Xenpelar Dokumentazio Zentrora eramango du. "Saioen grabazioak egiten dituzten biltzaile finak ditugu, baina gehiago ere gustura hartuko ditugu" dio Xenpelarreko Oihana Aranburuk. Dokumentazio zentroko lantaldeak tratatuko du edukia, eta han jaso aurrerantzean behar duenak eskuragarri izan dezan: "Argazkiak, audio eta bideo grabazioak, dokumentuak... denetarik jasotzen dugu", dio Olatz Amundarain lankideak.

Material hori bertsolaritzaren memoria osatuko duen ondare bilakatuko da dokumentazio zentroan jaso, antolatu eta gizarteratzean: "Bertsolaritza mugimenduak, sorkuntza kolektiboa izanik, ezagutza ere modu kolektiboan jasotzea ezinbestekoa du", adierazi du Aranburuk. 1991tik darama zeregin horretan Xenpelar Dokumentazio Zentroak.



HAMARREKO TXINPARTA



Bereziartua

Sagardo Naturala 1870etik



@SBereziartua



Sidrás Bereziartua Sagardoak



Sidreria Bereziartua



@sidrasbereziartuasagardak

Bere-Aran Etxea
Iparralde Bidea. 16.
20115 ASTIGARRAGA
Gipuzkoa
Tel (+34) 943 55 57 98